



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Aireportu batean bizi naiz

Aireportu batean bizi naiz. Nirea ez da pelikuletako aireportu bat, ordea. Hemengo pilotuek ez dute musika-bandarik izaten

atzean. Jendea elkarri begira gertzen ez den aireportu bat da nirea, bidaiariak bizkarrak karga-karga eginda dabiltzana, poliziek zaindua, bere denbora eta arnasak metalezkoak diren aireportu bat. Hesien gainean ukondoak bermatuta jendearen joan-etorri presatuei begira jarri naiz. Nora ote doazen galdetzen diot nire buruari, norabait ote doazen edo denbora errazago iragate aldera soilik dabiltzan oinez, hanken ibiliak ordulari digital erraldoien barruko zirkuituak azkarrago mugituko dituen esperantzaz.

Badakizue, mundu honetan ez dago aulki batean eta bakarrik eserita egotea baino ekintza ezerosoagorik. Nora begiratu, besteak gure egoeraren erridiku-luaz jabe ez daitezten? Eskerrak mugikorrak asmatu ziren ezer egiten ari ez garenean ere zerbait egiten ari garenenaren itxurak egin ahal izateko.

Aireportu batean bizi naiz. Nire aireportuak etorbide zabalak eta kale estuak

dauzka, etxeak eta parkeak, eskolak eta fabrikak, itsasoak eta mendiak. Urtaroak ere igarotzen omen dira bertatik, baina erotuta dabil-tza aspaldion.

Abuztuko azkeneko asteburua da hau, baina otsailez mo-zorrotuta iritsi da, euritsu eta ospel. Hesiaren atzean Arriaga ikusten dut, Udaltzaingoaren zintaz itxia. Gaur urtebete hemen ibiliko zen jendetza irudikatu dut, txosnen zarata Area-tzan eta katxi edalontzi zanpatuak espaloi gainean. Egunsentia, ezeza-gunak ere kide bilakatzen ditugun gaupasaren osteko euforia une hori. Gaur bidaiariak baino ez ditut ikus-ten, bidaiariak eta estazio eta igogai-luetako elkarriketa hotsak, espazio eta denbora hutsak hitzez estaltzea beste helbururik ez duten jardun hi-

peraktibo horiek. Hegaldien panela erotu egin da; iraila baino ez da ager-tzen. Eta irailetik aurrera, ezer ez. Honek denak zentzurik ba ote dau-kan galdetzen diot nire buruari; hitz hauek, inguruan entzuten den musi-kak, ze zentzu daukan guztiak. Ba ote den hegalditik hegaldirako pa-rentesi-arte honetan irauten duen ezer, eragiten digun zerbait. Edo hor-txe jarraitzen dugun, Godoten espe-roan.

Aireportu batean bizitzearen aje-ak, badakizue. Inguruan dauzkada-nen gorputz kargatuak arindu nahiko nituzke, orno eroriak zu-zendu, ikaraz betetako zorroak hustu. Eta, halako batean, nire itzala ikusi dut lurrean, noragabe eta biz-

karra makur-makur eginda. Martxotik hona entzun, irakurri eta esan ditudanak he-zurren artean pilatu izan ba-litzaizkit beza-la. Ez-uda, ez-festak. Dena mugitu didate. Eta ni ere hara-hona abiatu naiz, ingura-tzen nauten ez-leku eta ez-denbora k-ibiliaren ibiliz urtuko direla-koan. Hegazkin bat hartu nahi-ko nuke, Abu Dhabira edo iazko abuztura, adibidez. •



Abuztuko azken asteburua da, baina Udaltzaingoaren zintaz itxia ikusten dut Arriaga.

Marisol RAMIREZ | FOKU